

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Argipean



Igor Estankona



Lo zaudela zabaldu dizkizut begiak

MIKEL ETXABURU

Erein, 2016

Mikel Etxaburuk ipurtargiarena egin du Bilboko Blas de Otero Poesia saria merezi izan duen *Lo zaudela zabaldu dizkizut begiak* (Erein, 2016) honetan. Ipurtargiak ez ei du eguzkia helburu: “Ematen du bere burua ikusteko lain argi;/ eta nahikoa zaio nor den ez ahazteko”. Ipurtargiaren argiak, bat-batean, farolak dira. Urbanoa baina naturarekiko erreferentziaduna, itxaropentsua baina hitsa, geldoa arean, liburua gauzen inguruan ohartzeko deia da zelanbait. Etxabururi ez zaio interesatzen sublimazioa edo zeru-goia; nahiago du lurreko ikusmira. Autoreak berak esana du: “Poesiak badu errealitatea eraldatzeko mailu hori. Niretzat poesia hori da: begiratzetik ikustera dagoen urrats hori poemetan islatzea. Zein da urrats hori? Kontzientziarena”.

Eta kontzientzia poetikoa eta soziala nahastean, ibiltzen ditu kaleak, barnekoak zein kanpokoak, bihotz-begiak zabalik, eta ez hainbeste begiak eurak. Horrela errelaxatzen zaizkio gaueko biztanleak, kutzazainetako maizterrak, ikusezin bihurtu ditugun geure mamuak: “Eguzkia irten da./ Plazetako egurrezko eserlekuak okupatuta daude,/ beti daude okupatuta,/ eta beti dira berdinak/ egurrezko eserlekuak hartzen dituztenak”.

Horregatik liburu honen hariak biderkatu egiten dira hiriaren irudi-amarauna sortu arte. Fikzio pertsonal antzeko bat da amaraun hori, esperientziak eta oraina lotzen dituena modu aski erreal batean, lirismo aski hausnartu batekin.

Batera eta nahasian datoz, halaber, argia eta gerizpea, nia eta besteak, denbora eta

memoria. Halako osotasun bat opatzen dio horrek poemategiari, inoiz eskergarria, uneka monotonoa. *Lo zaudela zabaldu dizkizut begiak* gehiago da pentsalari baten poema liburua, poeta baten pentsamendua baino. Edertasuna, erritmoa, hitza... bigarren mailakoak dira beste bertute batzuen aldean. Kritika, hunkidura, enpatia... horiek bilatzen ditu Etxaburuk agirika, eta askotan desesperazio hori, zerbait esan beharraren beharra, horixe da hain zuzen poema konplikatu eta nahastu egiten duena, metafora duda mudazkoetan: “Eta olatuak bainuontzian gorde nahi zenituzke,/ baina beranduegi da, bainuontzia zulatuta dago eta/ itsasoak ihes egin du zure bainugelatik”.

Hau ez da *Zu zara orain txoria* (Elkar, 2011) eta *Hodeiak zapatetan* (Susa, 2014) bezain freskoa, ez da hain borobila. Haietan erreka bezala zioan irakurketa, berez-berez. Honako lan hau behartuagoa iruditu zait, energia xahutze bat. ■



Mikel Etxaburu
(Ondarroa, 1969)
poetaren hirugarren
poesia liburua da
honako hau.